

# Autokontsumoko instalazio fotovoltaiko baten dimentsioak 2.0A eta 2.1A tarifak bateriekin



## Hipotesia

- 2.0A eta 2.1A sarbide-saria duten kontsumitzaileen ordutegi-eskaria, eta aldi bakarreko neurketa-ekipoak (azken profila, 2016 - Espainiako Energia Sarea).
- Instalazio fotovoltaikoetarako ordutegi-profilen funtzionamendu-faktorea, eremu klimatikoaren arabera (413/2014 Errege Dekretua).
- Dimentsioa pentsatuta dago sarera egindako isurpenak (ez da isuririk ekoizten) eta bateriaren neurria minimizatzen.

## Dimentsio fotovoltaikoa

Instalatu beharreko potentzia-pikoa (kWp) eta bateriaren gaitasun erabilgarria (kWh), urtean kontsumitzen den 1.000 kWh bakoitzeko.

	I. eremua	II. eremua	III. eremua	IV. eremua	V. eremua
kWp >	0,51	0,44	0,42	0,39	0,37
kWh >	0,78	0,76	0,88	0,76	0,79

## Eraitza energetikoak

Instalazio fotovoltaikoak urtean ekoiztutako energia (kWh/urte), urtean kontsumitzen den 1.000 kWh bakoitzeko.

	I. eremua	II. eremua	III. eremua	IV. eremua	V. eremua
Ekoizpena FV * >	387,51	369,34	376,84	397,54	397,84
Bateria ekarpena * >	144,36	138,08	160,04	136,01	146,15
Autokontsumoa > (%, eskariaren gainean)	% 53,2	% 50,7	% 53,7	% 53,4	% 54,4

\* Unean bertan kontsumitutako ekoizpen fotovoltaikoa.

\* Bateria metatutako ekoizpen fotovoltaikoa, ondoren kontsumitua.

## Eraitza ekonomikoak

Urteko aurrezpen ekonomikoa (€/urte), kontsumitzen den 1.000 kWh/urte bakoitzeko (zergak 2.0A tarifa bilduta; bildu gabe 2.1A tarifa).

### 2.0A TARIFA

	I. eremua	II. eremua	III. eremua	IV. eremua	V. eremua
Aldi iragankorra >	69,03	65,62	69,51	69,34	70,84
Aldi iragankorraren ostean >	39,82	37,75	40,02	40,04	40,96

### 2.1 A TARIFA \*

	I. eremua	II. eremua	III. eremua	IV. eremua	V. eremua
Aldi iragankorra >	531,88	507,41	536,90	533,57	543,98
Aldi iragankorraren ostean >	395,03	376,84	398,73	396,25	404,03

\*(biderkatu energia-terminoaren prezioarekin €/kWh)

Dimentsio-fitxa horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta helburu bakarra instalazioen kalkulua bizkorra eta gutxi gorabeherakoa egitea da. Instalatzaile baimendu batek egin beharko du kasu jakin bakoitzera ondoen egokituko den instalazioaren kalkulua espezifiko eta zehatzagoa, bai kontsumo elektrikoarena, bai modulu fotovoltaikoak hartzeko eskura dagoen espazioarena.

Autokontsumo elektrikorako eguzki-instalazio fotovoltaikoak egiteko, ESPEZIALISTA KATEGORIAKO TXARTELA duten instalazio elektrikoaren enpresetara jo behar da.

Instalazio fotovoltaikoaren energia-ekoizpena aurreikusteko, 413/2014 Errege Dekretuan ezarritako funtzionamendu-faktoreak hartu dira aintzat, % 20 murriztuta, pentsaturik instalazio mota horrek ez duela izango segimendu-sistemarik.



Autokontsumoko instalazio fotovoltaiko baten dimentsioak

## 2.0A eta 2.1A tarifak bateriekin

### II. EREMUKO ADIBIDEA

#### Hipotesia

- 2.0A eta 2.1A sarbide-saria duten kontsumitzaileen ordutegi-eskaria (2017), eta aldi bakarreko neurketa-ekipoak (azken profila, 2016 - Espainiako Energia Sarea).
- Instalazio fotovoltaikoetarako ordutegi-profilen funtzionamendu-faktorea, II. eremu klimatikoan (413/2014 Errege Dekretua).
- Dimentsioa pentsatuta dago sarera egindako isurpenak eta bateriaren neurria minimizatzen.

#### Dimentsio fotovoltaikoa

0,44 kWp fotovoltaiko eta 0,76 kWh-ko metaketa, eskatutako 1.000 kWh/urte bakoitzeko.

#### Emaitza energetikoak

Autokontsumoa: eskariaren % 50,7.

Eskaria ➤ 1.000,0 kWh/urte  
Ekoizpena FV \* ➤ 369,34 kWh/urte

Bateria ekarpena \* ➤ 138,08 kWh/urte  
Isurketa ➤ 0,0 kWh/urte

\* Unean bertan kontsumitutako ekoizpen fotovoltaikoa.

\* Baterian metatutako ekoizpen fotovoltaikoa, ondoren kontsumitua.

#### Emaitza ekonomikoak \_ KTBP tarifa (kontsumitzaile txikiarentzako borondatzeko prezioa) 2.0A

Saretik energia gutxiago erosi beharraren ondorioz izandako aurrezpena (2016ko energia-terminoaren prezioaren arabera) kontsumitutako 1.000 kWh/urte bakoitzeko 65,62 €/urte izango litzateke aldi iragankorrean, eta 37,75 €/urte aldi hori igaro ostean (zergak barne).

